

## **Bezeroen Segmentazioa**

Gure proiektua, jendeak itxuragatik edota irauntzeare dagoalako saldu ezinik geratzen dan janaria erabiltzen dauen jatetxea da. Beraz, gure bezero gehienek bat egiten dabe janaria aprobetxatu eta ez botatzearen printzipioarekin, munduan janari asko botatzen da eta. Kilometro 0 filosofia defendatzen dabe. Gure bezeroek izango duten profil mota, janaria alferrik galtzea gaizki ikusten dabenak dira, hau da, ezer alferrik galdu behar ez dala uste dabenak. Beraz elikagaien xahuketaren aurkako jarrerak eta ekimenak defendatzen dabez eta jasangarritasunagaz konpromezua daben herritarrak dira. Gainera, eskaintzen dogun prezio merkeagatik etorriko diran bezeroak ere izango doguz, zehazki 12'5 eurokoak izango dira menuak. Astegunetan langile eta ikasle asko etxetik kanpo bazkaltzera behartuta dagozanez, profil horretako bezeroak ere izango doguz. Gure negozioa Bilboko Indautxun kokatuta egongo danez, Bilboko herritarrak eta Bilbon lan edota ikasten daben bezeroak izango dira. Gainera, Bilboko turismo gorakada ikusita, Bilbo bisitatzera datozen turistei ere zuzenduta egongo da, horietatik asko gure baloreekaz bat egiten bait dabe.